



## **Lehiaren Euskal Agintaritzak Quirón vs. IMQ gaian egin duen artxibatze ebazpena abalatu du EAEJANK**

QuirónSaludek salaketa jarri zuen Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurrean, IMQ Aseguruakek gehiegikeriaz erabiltzen duelako Bizkaian duen nagusitasun posizioa

Auzitegiak arrazoia eman dio Lehiaren Defentsarako Legea urratu izanaren zantzurik ez zegoela erabaki zuen Lehiaren Euskal Agintaritzari.

BILBON, 2020ko urriaren 20an / **Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin du IDCQ Hospitales y Sanidad S.L.U.-k (QuirónSalud), Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA/AVC) 2019ko urtarrilaren 30eko Ebazpenaren aurka aurkeztu zuen administrazioarekiko auzi errekurtsioa. Ebazpen horren bitartez, zehapen-prozedura ez hastea eta gaia artxibatzea erabaki zen, “ez zegoelako Lehiaren Defentsarako Legearen 2. artikulua urratu izanaren zantzurik”.**

QuirónSaludek salaketa aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurrean, IMQ Aseguruakek gehiegikeriaz erabiltzen omen duelako Bizkaiko osasun arretako aseguru pribatuen merkatuan duen nagusitasun posizioa.

Lehiaren Euskal Agintaritzak instrukzio-lan handia egin zuen, eta ondorioztatu zuen IMQ Aseguruakek nagusitasun posizioa duela Bizkaiko osasun aseguru merkatuan, baina bere jokoan ez zela abusu zantzurik frogatzen. Hori dela eta, LEA/AVCk zehapen-espediterik ez hastea erabaki zuen; izan ere, Lehiaren Defentsarako Legearen 2. artikulua arau-haustea egon dadin, abusuzko jokabidea frogatu behar da, merkatuan nagusitasunezko jarrera egotea, berez, ez baita ez legez kanpoko ez zehagarria.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoak arrazoia eman dio LEA/AVCri, eta, era berean, prozeduraren kostuak QuirónSaludi ezartzea ebatzi du.

### **Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz**

Lehiaren Euskal Agintaritzza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta autonomia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketara ekonomikoetara dagokienez.